

Prentsa Oharra

Nota de Prensa



Udalak soberakinaren zati handi bat bideratuko du Loiolako Kuartelak erosteko

Aurreko urtetako 113,9 milioi euroko inbertsioak gehitu dira 2023ko ekitaldira; horietatik 62,5 milioi esleituta eta lanak hasita daude, edo laster esleituko dira lizitazio prozesuan daudelako

Ogasun eta Finantzetako zinegotzi Kerman Orbegozok azpimarratu du, Udalaren egoera ekonomikoa orekatua dela, eta beraz ez dagoela oztopo finantzierorik 2023an aurreikusitako ekintza guztiak egiteko

Donostiako Udalak 2022ko aurrekontuaren likidazioa aurkeztu du, eta emaitza honakoa izan da: Udalak 8,6 milioi euroko superabitarekin amaitu du, hain zuzen ere, gehienbat Loiolako Kuartelak erosteko erabiliko den superabita.

Ogasun eta Finantzetako zinegotzi Kerman Orbegozok esan du, 2022ko likidazioak erakusten du Udalaren finantza-egoera orekatua dela. Hortaz, bestak beste, izandako superabitari eta pendiente zeuden aurreko urtetako inbertsioen inkorporazioari esker, soberakinaren zati handi bat Loiolako Kuartelak erosteko erabili ahal izango da.

Aurkeztutako likidazioa soilik Udalaren aurrekontu-ekitaldiarena da eta, beraz, ez ditu kontuan hartzen Udalaren mendekoak diren 14 udal-elkarte eta -sozietateak. Elkarte eta sozietateek kontuak administrazio kontseiluetan aurkeztuko dituzte. Hala ere, esan beharra dago, aurrekontuaren likidazioak udal-elkarte eta -sozietateek euren kontuak abenduaren 31ko datarekin orekatzeko behar adina baliabide finantzieroak aurreikusten dituela.

Diru-sarrera arruntak eta apartekoak

Ogasun eta Finantzetako zinegotzi Kerman Orbegozok nabarmendu du, Udalaren diru-sarrera arruntak 23,5 milioi euro handiagoak izan direla, hau da, %6,5 handiagoak.

Eta igoera horren arrazoi nagusia da, Udalak Finantziatzeko Foru Funtساتik datorren diru-sarrera aurreikusitakoa baino 5,4 milioi euro handiagoa izan dela, eta beraz, Udalak 159,9 milioi euro jaso ditu Udalak Finantziatzeko Foru Funtساتik.

Tasa eta zergen diru-sarrerei buruz, azpimarratu behar da ICIO eta IAE direlako zergetatik izandako diru-sarreraren handitzea. Zehatzago, ICIO delakoan 0,2 milioi euro gehiago jaso dira eskatutako baimen kopurua dela-eta; eta aldiz, IAE delakoan, 1,6 milioi euro gehiago jaso dira zergaren errolda handitu delako.

Halaber, aurreikusitakoa baino 1,7 milioi euro gehiago jaso dira lanekin jabari publikoa okupatzeagatik ordaindu beharreko tasan. Betalde, TAOaren gaineko tasan milioi bat euro gutxiago jaso dira; ur eta saneamendu tasetatik izandako diru-sarrerak aurreikusitakoak izan dira, eta hondakinak jasotzeko tasa dela-eta eta jasotakoa 0,2 milioi eurotan handitu da.

Prentsa Oharra

Nota de Prensa



Izandako diru-sarrera arruntei esker, Udalak ez ditu erabili behar izan aparteko diru-sarreretan aurreikusita zeuden 13,3 milioi eurotako mailegu berriak.

Gastu arruntak eta inbertsioak

Bestalde, iazko ekitaldian gastu arrunta aurreikusitakoa baino 25,1 milioi euro txikiagoa izan da - 0,4 langile-gastuan, 14,3 funtzionamendu gastutan, 10,3 diru-laguntzatan, eta 0,04 kreditu globalean -.

Inbertsioei buruz, Udalak aurreikusitakoaren %34,71 exekutatu du. Hortaz, 2023ko ekitaldira 113,9 milioi euro zenbatzen dituzten inbertsioak gehitu ditu.

Kopuru horretatik 62,5 milioi euro (%55) esleituta eta lanak hasita daude, edo laster esleituko dira lizitazio prozesuan daudelako; besteak beste, seguidakoak: Loiolako Kuartelen salerosketa; Eskusaitzetako Urbanizazioa; Next Funtsetan jasotako hainbat jarduketak; edo Zubietako Hockey Zelaiaren amaiera eta Kontxako baranda berritzeko lanen amaiera.

Ahorro y endeudamiento

2022ko abenduaren 31n zegoen aurrezki arrunta 36,3 milioi eurotako zen. Horri esker, Udalak gastu arruntei diru-sarrera arruntekin arazorik gabe aurre egin diezaieke.

Horrenbestez, 2023ko kontuetan ez da desorekarik sortuko, eta Udalaren honitzaileek legeak ezartzen dituen 30 egunetako epea baino lehen kobratu ahal izango dituzte fakturak. Horiek horrela, Udalak 2022.urtea amaitu zuen batez besteko 16,59 egunetako ordainketa epearekin.

Gainera, 2022ko likidazioak erakusten du, Udalak arrazoizko zorpetze maila duela. Finantza-entitateei itzuli beharreko zorra 66,1 milioi eurokoa da, hau da, 2021ean baino 6,7 milioi euro gutxiago. Eta zifra honek diru-sarrera arrunten %19,42 ordezkatzen du. Gogoratu behar da, udalentsat arrazoizkotzat jotzen den zifra %70 dela.